Altzako Historia Mintegia

www.altzanet.eus

# OHIKO BATZAR OROKORRAREN AKTA
# ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA

Casares Kultur Etxean, 2019ko martxoaren 14an, Altzako Historia Mintegiaren Ohiko Batzar Orokorrari hasiera eman zitzaion arratsaldeko 07:00ean, ondoko partaide hauekin: Antxon Alfaro Sagasti, Rafa Altube Zumalde, Angel Calvo Barco, Javier Cantera De Petris, Javi Castro Montoya, Joxerra Fernández Cañada, María Luisa García Erice, Emi García González, Miren Koro García Moraza, Karmentxu García San Román, Susana Hernández Corchete, Iñako Indaberea Puy, Manuel Iranzo Peris, Iñigo Landa Ijurko, Pilar Lázaro Pertierra, Anttoni Loro Moreno, Maribel Manzano Herce, Luis Mari Ralla Arruti, Mari Paz Sainz Ubarrechena (José María Cendoya), Jon Serrano Gamaza, Juan Andrés Vega Andrés, José Ramón Zapirain Larraza.
Batzarra hasi aurretik 2018. urteari dagokion Estibaus buletina banatu zen. Segidan, batzarraren gai-zerrendari heldu zitzaion.

*En la Casa de Cultura Casares, a las 07:00 de la tarde del día 14 de marzo de 2019, se celebró la Asamblea General Ordinaria de Altzako Historia Mintegia con la participación de: Antxon Alfaro Sagasti, Rafa Altube Zumalde, Angel Calvo Barco, Javier Cantera De Petris, Javi Castro Montoya, Joxerra Fernández Cañada, María Luisa García Erice, Emi García González, Miren Koro García Moraza, Karmentxu García San Román, Susana Hernández Corchete, Iñako Indaberea Puy, Manuel Iranzo Peris, Iñigo Landa Ijurko, Pilar Lázaro Pertierra, Anttoni Loro Moreno, Maribel Manzano Herce, Luis Mari Ralla Arruti, Mari Paz Sainz Ubarrechena (José María Cendoya), Jon Serrano Gamaza, Juan Andrés Vega Andrés, José Ramón Zapirain Larraza.*
*Antes del inicio de la Asamblea ser reparte el boletín Estibaus correspondiente al año 2018, pasando a continuación, a tratar el orden del día de la Asamblea.*

## 1. 2018. urteko memoriaren onarpena

Idazkariak 2018 urteko memoria aurkeztu zuen:

## *1. Aprobación de la memoria del año 2018*

*El secretario presentó la memoria del año 2018:*

### 1. Altzanet

Elkartearen web gunean egiten aritu garen eguneratze lanengatik 2018.urtean zehar tamalez ez da erabilgarri egon. Eraberritze lan horretan ezusteko ugari sortu dira eta espero baino zailtasun gehiago topatu ditugu. Hala ere, bidean dago eta aurki berriro erabiltzeko moduan edukiko dugula espero dugu.
Sare sozialetan, ordea, Altzanet aktiboa egon da, Twiter, Facebook eta Youtube sareetan, orain arte bezala, poliki-poliki tamaina handituz: 319 jarraitzaile lehenengoan, 279 bigarrenean, eta 74 bideo eskainiz Youtubeko Altzanet kanalean.

### 1. Altzanet

Los trabajos de actualización de la web de la asociación han hecho que durante el año 2018 la página web de la asociación haya estado desactivada. Las complicaciones que han ido surgiendo en el proceso no nos han permitido terminarla en los plazos deseados, pero confiamos con tener el sitio listo próximamente.
La presencia de AHM en las redes sociales (Twiter, Facebook y Youtube) ha sido activa alcanzando en las dos primeras los 319, y 279 seguidores, respectivamente, y ofreciendo 74 vídeos en el canal Altzanet de Youtube.

### 2. Argitalpenak

#### 2.1 Estibaus bloga

Estibaus blogean 53 sarrera argitaratu dira. Horietatik 33 euskaraz zein gaztelaniaz daude, 10 soilik gaztelaniaz eta 9 soilik euskaraz, eta beste bat galegoz. Kopuruak atalez atal sailkaturik hauek dira: Tokiko Bilduma 11, Ikerketa 2, AltzaNatura 2, Ibilaldiak 8, Notiziak 8, Kronikak egungoak 9, Kronika zaharrak 2, Iritzia 9, eta In memoriam 2.

### 2. Publicaciones

#### 2.1 Blog Estibaus

En el blog **Estibaus** se han publicado 53 entradas, de ellas 33 en euskera y castellano, 10 solo en castellano, 9 solo en euskera, y uno en gallego. El número de entradas clasificadas por categorías: Colección Local 11, Investigación 2, AltzaNatura 2, Excursiones 8, Noticias 8, Crónicas actuales 9, Crónicas antiguas 2, Opinión 9, In memoriam 2.

#### 2.2 Egutegia

Azken hogei urteotan, huts egin gabe, urte amaieran egutegi berria aurkezteko elkartu izan gara. Hori horrela, abenduaren 14an egindako Altza 2019 egutegiaren aurkezpenaren kronika hasi genezake Erdi Aroan eta Modernoan dokumentuen sarreretan ohikoa zen eredua erabiliz: “aiuntados en Tomasene según que lo havemos de uso y constumbre de nos juntar". Eta are gehiago, aurtengo egutegiaren gaiari erreparatzen badiogu, hau da, "Herria, Udalerria, Barrutia", udaletxearen atzoko eta gaurko bi irudi ere badituela. Argazki zaharra "Album gráfico-descriptivo del País Vascongado" liburutik hartuta dago, 1915ean Rafael Picavea politikari eta industrialak argitaratua.
Barrutiko Batzarraren lehen osoko bilkura aurtengo irailean egin da, Altzako udaletxe zaharraren batzar aretoan. Horrek historian zehar Altzako kontzejuaren biltokien berrikuste bat egitera eraman gaitu. San Martzial eliza 1390. urtean eraikitzea erabaki zuten arte, Estibaus zelaian biltzen ziren altzatarrak. Ondoren, XVIII. mendean lehen kontzeju-etxea eraiki bitartean, elizako hilerrian. Eta, azkenik, XIX mendetik aurrera ezagutzen dugun gaur egungo eraikinean. Denbora horretan guztian, Altzak egoera administratibo desberdinengatik pasatu du: hiriaren jurisdikzioaren menpean, autonomia administratibo eta ekonomiko zuen herri bezala; udal independente bezala -Altzako udalbatzak Donostiatik banantzeko bidea hartzea erabaki zuenetik aurten berrehun urte betetzen dira-; eta barruti bezala, 1940ko anexioaren ondorioz.
Orain dela gutxi gorabehera lau hamarkada Altza-Buenavista

#### 2.2 Calendario

Desde hace veinte años nos hemos juntado por estas fechas para la presentación del nuevo calendario, por lo que muy bien podríamos comenzar la crónica de lo que fue la presentación del calendario Altza 2019 del pasado 14 de diciembre con la fórmula "aiuntados en Tomasene según que lo havemos de uso y constumbre de nos juntar", habitual en los encabezamientos de documentos medievales y modernos. Y con más razón aún si atendemos al tema del calendario de este año, "Población, Municipio, Distrito", que viene acompañado con sendas imágenes de ayer y hoy de la Casa Consistorial. La foto antigua está tomada del libro "Álbum gráfico-descriptivo del País Vascongado", publicado en 1915 por el político e industrial Rafael Picavea.
La puesta en marcha en 2018 del Distrito, que celebró su primera Junta en septiembre en el salón de plenos del antiguo ayuntamiento de Altza, nos ha llevado a realizar un repaso histórico del lugar de reunión del concejo altzatarra: desde el campo de Estibaus, donde solían reunirse hasta la construcción de la iglesia San Marcial en 1390, pasando por el cementerio de la iglesia hasta la construcción de la primera casa concejil en el siglo XVIII, y, finalmente, en el edificio actual desde el siglo XIX. En todo ese tiempo, Altza ha pasado por distintas situaciones administrativas: como población con una autonomía administrativa y económica importantes, como municipio independiente -este año se cumplen doscientos años desde que el concejo altzatarra decidió tomar el camino de separarse de San Sebastián-, y como

barrutia eta hori ordezkatzen zuen auzo-alkatearen irudia desagertu ziren formalki. Beste elkarte batzuekin batera, gure elkarteak 2005etik hona parte-hartze eta ordezkaritza organo baten beharra aldarrikatu du, gure auzoetako bizilagunen arazo zehatzei aurre egingo diena eta gure bizitokian zentratutako perspektiba duena. 2018an, azkenean, Barrutiak lehen urratsak eman ditu, beste gauzen artean, Batzarrean parte hartzen ari direnen ahalegin pertsonal eta kolektibo handiari esker.
Ostiraleko aurkezpenean ere Twitter sare sozialean daukagun kontuari heldu genion eta, hilabete bakoitzeko txio bat aukeratuz, urte osoko ardatz kronologiko batean kokatu genituen. Hamabi tuit horien bitartez 2018 honetan garrantzitsuagoak iruditu zaizkigun gaiak nabarmenarazi nahi izan ditugu eta, bidenabar, 2019ko agendari begira oharrak hartu.
Ekitaldia ixteko, "Atzo eta gaur" bideoa proiektatu genuen, Garberan iragan hilabetean erakutsitako argazkietatik abiatuta, oraingo argazkiarekin batera.
Ostiralean berrogeita hamar lagunetik gora, aspaldikoak eta berriak, egutegi berriaren inguruan giro ezin hobean elkartu ginen eta gogoz geratu ginen beste behin batean berriro elkartzeko.
Egutegia Casares kultur etxearen bitartez banatzen dugu, baita egutegia argitaratzen lagundu digutenen bitartez ere: Eroski Altza eta Txukun komertzioak, Nido eta Zumardi tabernak, eta Betikoak garraioak.

distrito, una situación ésta derivada de la anexión de 1940.
Hace poco más o menos cuatro décadas desaparecieron formalmente el distrito Altza-Buenavista y la figura de alcalde pedáneo que lo encarnaba. Nuestra asociación, conjuntamente con otras asociaciones, ha reivindicado desde 2005 la necesidad de un órgano de participación y representación que hiciera frente a la problemática concreta de los vecinos y vecinas de nuestros barrios, con una perspectiva centrada en nuestro territorio. En 2018, al fin, el Distrito ha dado sus primeros pasos gracias al importante esfuerzo personal y colectivo de las personas que están participando en la Junta.
En la presentación del viernes echamos mano de nuestra cuenta en la red social Twitter para, ayudándonos de una línea del tiempo y seleccionando un tuit por mes, apuntar algunos de los asuntos que nos han parecido más importantes en este 2018, y que pensamos deberían estar también en la agenda de 2019.
Para cerrar el acto, proyectamos el vídeo "Atzo eta gaur" que hemos realizado a partir de las fotos expuestas el mes pasado en Garbera junto con su correspondiente foto actual.
El viernes más de medio centenar de viejos y nuevos amigos y amigas nos juntamos con muy buen ambiente en torno al nuevo calendario y salimos con ganas de volvernos a juntar en una nueva ocasión.
El calendario lo distribuimos en Casares, y por medio de los que nos han ayudado en la publicación: los comercios Eroski Altza y Txukun, los bares El Nido y Zumardi, y transportes Betikoak.

## 3. Altzako Tokiko Bilduma

Altzako Tokiko Bilduma Casares Kultur Etxetik eskaintzen den dokumentazio zerbitzu bat da, Altzaren ondare dokumentala biltzeko, mantentzeko eta ezagutzera emateko sortua. Bildumaren aurreneko lanak 1986an hasi ziren eta 1992ean lehen katalogoa egin zen. Sei urte beranduago, 1998an, Kultura Udal Patronatuaren, orain Donostia Kultura, eta Altzako Historia Mintegiaren arteko lehen lankidetza-hitzarmena sinatu zen, ondoren berritzen joan dena.
Urtez urte osatzen, handitzen eta garai berrietara egokitzen joan da. Une honetan, Altzako Tokiko Bilduman 16.915 dokumentu daude katalogatuak, eta horietako 13.111 Interneten bitartez kontsulta daitezke www.altza.info webgunean. Pasa den 2018. urtean, dokumentu bilaketan eta bilketan egindako lana garrantzitsua izan da. Besteak beste, merezi du aipatzea hemerotekan 1936, 1937, 1938, 1939 eta 1940 urteen hustuketa amaitu dela; aurten katalogatu eta webean ikusi ahalko da. Katalogazio lanari helduz, Altzako Tokiko Bilduman 298 dokumentu berri katalogatu dira.
Bildumaren hedapenean, hiru puntu nabarmenduko ditugu. Lehenik, web orriaren erabiltzaileen eta orrialdeen bisiten gorakada. Izan ere, 2017. urtearekin alderatuta, 2.344 bisitaritik 3.329ra pasatu da eta, orrialdeetara egindako bisita kopuruak denera, 50.932tik 90.211ra igo da (iturria Google Analytics). Bestetik, Casaresen bertan ostegun arratsaldetan, 17:30tik 20:30era eskaintzen den kontsulta zerbitzura 49 pertsona hurbildu dira. Horrez gain, zuzeneko kontsulta zerbitzuari lotuta, 352 mezu trukatu egin dira posta elektronikoen bitartez, horietako asko 12 ikerketen inguruan bilduak. Azkenik, ezin aipatu gabe utzi Garbera merkatal zentroan urriaren 31tik azaroaren 24ra ikusgarri egon den argazki erakusketa arrakastatsua.
Esan bezala, Tokiko Bilduma Altzaren ondare dokumentala biltzeko, mantentzeko eta ezagutzera emateko sortutako zerbitzua da. Ahalegin horretan tinko ari dela erakutsi du eta hasi berri den urte honetan ildo beretik jarraitzea espero dugu.

## 3. Colección Local de Altza

La Colección Local de Altza es un servicio de documentación que se ofrece desde la Casa de Cultura Casares para la recogida, mantenimiento y difusión del patrimonio documental de Altza. Los primeros trabajos de la colección comenzaron en 1986 y en 1992 se realizó el primer catálogo. Seis años después, en 1998, se firmó el primer convenio de colaboración entre el Patronato Municipal de Cultura, actualmente Donostia Kultura, y Altzako Historia Mintegia, convenio que se ha ido renovando posteriormente.
La Colección ha ido creciendo y adaptándose a los nuevos tiempos. En este momento cuenta con un fondo de 16.915 documentos catalogados, de los cuales 13.111 pueden consultarse a través de Internet en www.altza.info. En el año 2018 ha sido importante el trabajo realizado en la búsqueda y la recogida de documentos. En este sentido, merece la pena mencionar, por ejemplo, que en la hemeroteca se ha terminado el vaciado de 1936, 1937, 1938, 1939 y 1940; este año se catalogará y se podrá ver en la web. En relación con el trabajo de catalogación, 298 nuevos documentos han sido catalogados y están disponibles en la web.
En la difusión de la colección destacaremos tres puntos. En primer lugar, el aumento del número de usuarios y el de páginas visitadas del sitio web de la Colección. Concretamente, en comparación con el año 2017, se ha pasado de 2.344 visitantes a 3.329 y el número de visitas a las páginas ha subido de 50.932 a 90.211 (fuente Google Analytics). Por otro lado, 49 personas se han acercado a Casares al servicio de consulta que se ofrece entre las 17:30 y las 20:30 horas los jueves por la tarde. Además, en relación al servicio de consulta directa, se han intercambiado 352 mensajes por correo electrónico, muchos de ellos relacionados en torno a 12 temas de búsqueda. Por último, no podemos dejar de mencionar la exitosa exposición fotográfica que se ha podido visitar desde el 31 de octubre al 24 de noviembre en el centro comercial Garbera.
Como ya se ha dicho, la Colección Local es un servicio creado para la recogida, mantenimiento y difusión del patrimonio documental de Altza. A lo largo de estos años ha demostrado que sirve para cumplir eficazmente con su objetivo y esperamos que continúe en la misma línea en este año que acaba de comenzar.

## 4. Lekukoak proiektua

Honez gero, 2018. urtean Lekukoak proiektuaren barnean egin ditugun 23 grabaketen transkribapenak bukatu ditugu, horietako 13 gaztelaniaz eta 10 euskaraz. Une honetan eduki horiek elkartearen weg gunean nola eskaini aztertzen ari gara
Elkarrizketetan jasotako informazioarekin, aurreko mendean Altzan emandako migrazio-prozesuei buruzko dokumentala prestatzen jarraitzen dugu eta aurki amaitzea espero dugu.
Horrez gain, frankismoan eta frankismoaren ondoren emakumeek Altzako bizitza politiko eta sozialean izan duen protagonismoari buruzko proiektu berri bat abiatu dugu. Dokumentazio lanarekin hastez gain, dagoeneko bi grabaketa egin ditugu, elkarteko bi bazkideei: Emi García eta Mª Luisa García.

## 4. Proyecto Lekukoak

En 2018 hemos terminado con el trabajo de transcripción de las 23 grabaciones que hemos realizado dentro del proyecto Lekukoak, 13 en castellano y 10 en euskara, y ahora estamos trabajando en la manera de cómo ofrecer los contenidos por medio de la página web.
Continuamos trabajando en la elaboración, a partir de las entrevistas realizadas, de un documental sobre los procesos migratorios en Altza en la segunda mitad del siglo pasado.
Así mismo, hemos puesto en marcha un nuevo proyecto en torno a la participación de la mujer en la vida política y social de Altza en el franquismo y post-franquismo. Además de iniciar el trabajo de documentación, hemos realizado ya dos grabaciones a dos socias

de la asociación: Emi García y Mª Luisa García.

## 5. Ibilaldiak

### 5.1 Plus 55: Altzatik abiatutako ibilbideak

Hauxe izan da 2018. urtean burututako ibilaldien egitasmoa. Gure herriko hainbat txoko ezagutu dugu eta inguruko beste herrietako museoak eta inguru naturalak ere bisitatu ditugu.

- Apirilak 26: CASARES-MOLINAO-TXIPRES-KUTARRO-BIZARAIN-GARBERA. Paseoa bat Altzako aldean dagoen San Marko mendiaren inguruan.
- Maiatzak 10: LEZO - ARROKAUNDIETA - MITXINTXOLA - PASAIA. Pasaiako badiaren goialdeko ibilbidea.
- Maiatzak 17: LUBERRI. OIARTZUNGO GEOLOGI MUSEOA. Bisita gidatua. Altzako VI. Naturaldiaren egitarauaren barnean, Oiartzungo bailararen historia geologikoa ezagutuz.
- Ekainak 7: JAIZUBIAKO PADURA - HONDARRIBIKO ERDI AROKO HIRIGUNEA. Paduran bizi diren hegaztiak eta Hondarribiko alde zaharra ezagutu.
- Ekainak 21: USURBIL - ZUBIETA – LASARTE. Ibilaldi bat hiru herrietan zehar.
  Irailak 13: SAN MARTZIAL (IRUN)
  Kolon pasealekua - Blaia - Aldabe. Ibilbide bat Irungo ermita horren inguruan.
- Urriak 4: URUMEAKO ERRIBERA. Ibilaldi bat Urumeako erriberan zehar, Loiola eta Martutene auzoen arteko inguruen aldaketak ezagutuz.

## 5. Excursiones

### 5.1 Plus 55: Caminos desde Altza

Este ha sido el programa de paseos de la temporada 2018 con el que hemos conocido algunos rincones de nuestra Villa y ampliado nuestras visitas a museos y parajes naturales de poblaciones de nuestro entorno.

- 26 de Abril: CASARES-MOLINAO-TXIPRES-KUTARRO-BIZARAIN-GARBERA. Paseo por el entorno de San Marcos en la zona altzatarra.
- 10 de Mayo: LEZO - ARROKAUNDIETA - MITXINTXOLA – PASAIA. Recorrido sobre la bahía pasaitarra.
- 17 de Mayo: LUBERRI. MUSEO GEOLÓGICO DE OIARTZUN. Visita guiada.
  Dentro de las jornadas de Naturaldia. Conociendo la historia geológica del valle de Oiartzun y su entorno.
- 07 de Junio: MARISMAS JAIZUBIA - CASCO MEDIEVAL HONDARRIBI
  Visita ornitológica a las marismas y recorrido por el Fuenterrabía antiguo.
- 21 de Junio: USURBIL - ZUBIETA – LASARTE. Paseo entre estas localidades.
  13 de Septiembre: SAN MARCIAL (IRUN). Itinerario Desde el Paseo de Colón - Blaia - Aldabe. Recorriendo el entorno de esta emblemática ermita irunesa.
- 04 de Octubre: RIBERA DEL URUMEA. Paseo por la ribera del Urumea, viendo la evolución del entorno entre Loyola y Martutene.

### 5.2 La Asunción Ikastetxea

Apirilaren 21ean Mirakruz Gainako La Asunción komentu eta ikastetxea barrutik ezagutzeko aukera izan genuen mojen eskutik. Bisitan hogeita hamar lagun parte hartu zuten eta lau orrialdeko foileto bat banatu zen komentuaren une historiko nagusiak laburbilduz. Kontadores Gaztelekuko argazkilaritza tailerreko partaide talde batek ere parte hartu zuen bisitan, eraikinaren argazki-erreportajea eginez.

### 5.2 Colegio La Asunción-Miracruz

El 21 de abril realizamos una visita al convento y colegio de La Asunción, en el Alto de Miracruz. Las monjas del convento guiaron la visita en la que participaron treinta personas y entre las que se distribuyó un pequeño folleto de cuatro páginas con las notas históricas más reseñables. Miembros del taller de fotografía del Centro Joven Kontaderes acompañaron al grupo haciendo un reportaje fotográfico del edificio.

### 5.3 Altzabasoa

Maiatzaren 5ean mendiko ibilaldi bat egin genuen Altzabasoaren mugetatik, Marko Sierrak gidatuta. Hemezortzi lagun parte hartu zuten eta, natur balioaz gain, mugarri guztiak bisitatu ziren.

### 5.3 Altzabasoa

El 5 de mayo llevamos a cabo una excursión montañera a Altzabasoa, guiados por Marko Sierra. La excursión contó con 18 participantes y, además de conocer sus valores naturales, se hizo un repaso de cada uno de los mugarris.

### 5.4 Txingurri hor dago!

"Txingurri hor dago!/Destapando Txingurri" paseoa 2018ko ekainaren 16 gauzatu zen. Cristina-enea Fundazioarekin elkar lanean, Txingurri errekaren antzinako ibilguan zehar ibilaldi bat egin genuen. Bizilagunen bizipenetik abiatuz eta dokumentazioa erabiliz, errekaren inguruan bizitutako historia partekatzea eta baita saneamenduaren problematikaren inguruan hausnarketa bat egitea ziren helburuak. Jardueran hogeita zortzi lagun parte hartu zuten.

### 5.4 Destapando Txingurri

El paseo tuvo lugar el 16 de junio de 2018 y se organizó junto con Cristina-enea Fundazioa. El recorrido seguía el antiguo trazado de la regata Txingurri, enterrada en la actualidad. Los objetivos del paseo era compartir las experiencias vividas por las y los vecinos que habían vivido en su entorno, aportar documentación sobre la regata, y conocer la red de saneamiento y su problemática, tomando conciencia de la importancia del agua en la historia y en la actualidad. En la actividad participaron 28 personas.

### 5.5 Deba

Urriaren 27an Deba ezagutzera joan ginen Javi Castroren eskutik. Bisitan Itziarko eliza, Lastur auzoa, Ugarteberri kobazuloa, Arbizkoako errekaren antzinako ibilgua, erroten eta burdinolen hainbat aztarnak, Sasiola aldea eta Urozagako iturria eta zubia ere bai. Amaitzeko, Debako Erdi Aroko hirigunearen bisita ere egin genuen. Txangoan hamasei lagunek parte hartu zuten.

### 5.5 Deba

El 27 de octubre organizamos una visita a Deba de la mano de Javi Castro. En el recorrido vistamos la iglesia de Itziar, el barrio de Lastur, la cueva Ugarteberri, el paleo cauce de Arbizkoa, molinos, la zona de Sasiola y el puente y la fuente de Urozaga. Terminamos visitando el casco medieval de Deba. En la excursión participaron dieciséis personas.

## 6. AltzaNatura

Altzako Naturaldiaren seigarren edizioa maiatzaren 5etik 25era gauzatu zen eta Geologiari eskainiko zitzaion. Antolaketan Donostia Kultura, Aranzadi Zientzia Elkartea, Luberri Fundazioa, Gipuzkoako Argazkigintza Elkartea, Plus 55 eta Altzako Historia Mintegia parte hartu zuten. Hauxe izan zen egitasmoa:

- 05: Mendiko ibilaldia Altzabasora, Marko Sierrak gidatuta
- 09.- "Lurraren Bidean" (2018) dokumentalaren proiekzioa, EHUk eta Aranzadi Zientzia Elkarteak egina
- 13.- Argazki Rallya Ametzagaina parkean
- 17.- Luberri, Oiartzungo Ikasgune Geologikoaren bisita gidatua
- 18.- "Zientziarekin jolasean" Geologia tailerra, Luberri Ikasgune Geologikoko kideen eskutik
- 19.- Altzatik San Markoseko gotorlekura ibilaldi geologikoa

## 6. AltzaNatura

La sexta edición de Naturaldia se desarrolló entre los días 5 y 25 de mayo, girando las actividades en torno a la Geologia. En su organización colaboraron Donostia Kultura, Aranzadi Zientzia Elkartea, Luberri Fundazioa, Asociación Fotográfica de Gipuzkoa, Plus 55 y Altzako Historia Mintegia. Este fue el programa:

- 05.- Excursión a Altzabasoa, guiada por Marko Sierra
- 09.- Proyección del documental "Lurraren Bidean" (2018), UPV y la Sociedad Aranzadi.
- 13.- Rally fotográfico en el parque de Ametzagaina
- 17.- Visita guiada a Luberri, Oiartzungo Ikasgune Geologikoa
- 18.- "Zientziarekin jolasean: Geologia tailerra" de la mano de Luberri
- 19.- Recorrido geológico desde Altza a San Marcos

- 25.- Argazki Rallyaren sari banaketa

- 25.- Entrega de premios del Rally fotográfico

**7. Barrutia**

2018an, azkenean, Ekialdeko Barrutia hasi da lanean. Maiatzaren 19an elkarteen ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak burutu ziren. Auzokideen ordezkaritza zortzi kidez osaturik dago, lau arloko elkarteen izenean eta beste lau auzo elkarteak ordezkatuz. AHMk bere hautagaitza aurkeztu zuen eta batzarkide bat lortu. Gainontzeko batzarkideak elkarte hauetako ordezkariak dira: Plazandreok, Emanhar, Auzoa, Herripe, Osteguna, Intxaurdi, IZBE. Barrutiaren Batzarraren lehen bilera ekainaren 29ean egin zen. Uztailetik abendu bitartean egindako lana, batez ere, barrutiaren funtzionamenduaren antolaketa arautzen eta aurrekontu parte hartzaileak lantzea izan da.

**7. Distrito**

En 2018, por fin, ha arrancado el Distrito Este. El 19 de mayo tuvieron lugar las elecciones para elegir la representación vecinal, compuesta por ocho miembros, cuatro en representación de las asociaciones vecinales, y otros cuatro por las asociaciones sectoriales. AHM presentó su candidatura y ha obtenido un puesto en la Junta. Los demás miembros representan a las siguientes asociaciones: Plazandreok, Emanhar, Auzoa, Herripe, Osteguna, Intxaurdi, IZBE. La primera reunión de la Junta tuvo lugar el 29 de junio. El trabajo realizado en el espacio de tiempo comprendido entre julio y diciembre ha estado dirigido a organizar el funcionamiento de la Junta y elaborar los presupuestos participativos.

**8. Elkartearen bizitza**

ALTAK
- Beatriz Ollero Etxeburua
- Coro Manso Iraola
- Mª Carmen Aguirre Alava
- Ana Artieda Villanueva
- Arantxa Idiazabal Loinaz
- Rafael Leiza Flores
- Itziar Udabe Arcocha
- Amaia Badiola Leon

BAJAK
- Francisco José Lasconateguy Gozategui (+)
- Alfredo Moraza Barea
- Arantza Zapirain Goikoetxea
- Jose Valentín Lizarraga Murua
- Iñaki Izurrategui Galdos
- Miren Iruretagoiena Iñarra (+)
- Joxe Albaro Fernandez Oihartzabal

Aurkeztutako 2018. urteko memoria aho batez onartzen da.

**8. Vida de la asociación**

ALTAS
- Beatriz Ollero Etxeburua
- Coro Manso Iraola
- Mª Carmen Aguirre Alava
- Ana Artieda Villanueva
- Arantxa Idiazabal Loinaz
- Rafael Leiza Flores
- Itziar Udabe Arcocha
- Amaia Badiola Leon

BAJAS
- Francisco José Lasconateguy Gozategui (+)
- Alfredo Moraza Barea
- Arantza Zapirain Goikoetxea
- Jose Valentín Lizarraga Murua
- Iñaki Izurrategui Galdos
- Miren Iruretagoiena Iñarra (+)
- Joxe Albaro Fernandez Oihartzabal

*Se aprueba por unanimidad la memoria del año 2018.*

**2. Ekonomi balantzea – 2018** | **2. Balance económico – 2018**

| | SARRERAK | GASTUAK |
|---|---|---|
| Aurreko saldoa (2018/01/01) | 17.146,50 | |
| Bazkide kuotak | 1.925,25 | |
| Kontu korronteen kudeaketa | 30,00 | 91,26 |
| Tokiko Bilduma | 5.000,00 | 3.112,22 |
| “Altza ezagutuz” Programa | 420,00 | 420,00 |
| “Estibaus” buletina | | 1.933,48 |
| Altzanet | | 1.550,27 |
| AltzaNatura | | 621,88 |
| Ganbara | | 60,00 |
| Lekukoak | | 708,49 |
| Egutegia - 2018 | | 630,71 |
| Egutegia - 2019 | 200,00 | 1.025,67 |
| Erakusketa Garberan | | 83,48 |
| Elkartearen bizitza | | 1.941,91 |
| **GUZTIRA . . .** | **24.721,75** | **12.179,37** |

***SALDOA (2018/12/31): 12.542,38 €***

| | |
|---|---|
| **KUTXABANK** | **2.632,76** |
| **LABORAL KUTXA** | **9.909,62** |

Altza, 2019ko urtarrilaren 16a.

Diruzainak aurkeztutako 2018. urteko balantzea aho batez onartua izan zen.

*La Asamblea aprobó por unanimidad el balance de cuentas correspondiente al año 2018 presentado por el Tesorero.*

**3. Bazkide berrien onarpena eta bajak**

ALTAK
- Beatriz Ollero Etxeburua
- Coro Manso Iraola
- Mª Carmen Aguirre Alava
- Ana Artieda Villanueva
- Arantxa Idiazabal Loinaz
- Rafael Leiza Flores
- Itziar Udabe Arcocha
- Amaia Badiola Leon

BAJAK
- Francisco José Lasconateguy Gozategui (+)
- Alfredo Moraza Barea
- Arantza Zapirain Goikoetxea
- Jose Valentín Lizarraga Murua
- Iñaki Izurrategui Galdos
- Miren Iruretagoiena Iñarra (+)
- Joxe Albaro Fernandez Oihartzabal

Une honetan elkarteak 204 bazkide ditu.

***3. Admisión de nuevos socios y socias, y bajas***

ALTAS
- Beatriz Ollero Etxeburua
- Coro Manso Iraola
- Mª Carmen Aguirre Alava
- Ana Artieda Villanueva
- Arantxa Idiazabal Loinaz
- Rafael Leiza Flores
- Itziar Udabe Arcocha
- Amaia Badiola Leon

BAJAS
- Francisco José Lasconateguy Gozategui (+)
- Alfredo Moraza Barea
- Arantza Zapirain Goikoetxea
- Jose Valentín Lizarraga Murua
- Iñaki Izurrategui Galdos
- Miren Iruretagoiena Iñarra (+)
- Joxe Albaro Fernandez Oihartzabal

En la actualidad la asociación cuenta con 204 socias y socios.

**4. 2019. urterako egitasmoa**

2019. urtean zehar garatzeko asmoa daukagun jarduerak hauek dira:

Casares-Tomasene Kultur Etxearekin elkarlanean:
- Altzako Tokiko Bilduma
- Altzatik abiatutako ibilbideak (Plus 55)
- Altzako Naturaldia

Elkartearen barneko jarduerak:
- Altzanet web gunea
- Ganbara bildumaren katalogoa
- Elkartearen artxibategia

Jarduera orokorrak:
- Dokumentala: 50-60 hamarkadetako immigrazio
- Kiroldegia/amiantoa
- Barrutia
- Gerra Zibila Altzan
- Altzapedia
- Ibilaldiak
- Estibaus bloga eta buletina
- 2020. urteko egutegia.

Jarduera horien finantzatzeko bazkideen kuotak, Tokiko Bilduma kudeatzeko hitzarmenaren ekarpena, eta elkartearen diru-erreserba daukagu. Gerra Zibilaren proiektua aurrera eramateko aurten diru-laguntza bat eskatuko da Donostia Kulturan.

***4. Plan de actividades para el año 2019***

*Las actividades previstas para desarrollar en 2019 son la siguientes:*

*En colaboración con la Casa de Cultura Casares-Tomasene:*
- *Colección Local de Altza*
- *Caminos desde Altza (Plus 55)*
- *Jornadas de la Naturaleza de Altza.*

*De carácter interno de la asociación:*
- *Sitio web Altzanet*
- *Catálogo de la Colección Ganbara*
- *Archivo de la asociación*

*Actividades:*
- *Documental: Inmigración años 50-60*
- *Polideportivo/Amianto*
- *Distrito*
- *La Guerra Civil en Altza*
- *Altzapedia*
- *Excursiones*
- *Blog y el boletín Estibaus*
- *Calendario 2020.*

*Para la financiación de estas actividades contamos la aportación económica de los socios y socias, el convenio de colaboración de la Colección Local, y el fondo de reserva. Este año se pedirá una subvención a Donostia Kultura para financiar el proyecto sobre la Guerra Civil en Altza.*

**5. Norberak dakarrena**

Batzarraren hasieran Tomas Paulis bazkidearekin gogoratu ginen, orain dela gutxi zendua eta ohiko parte hartzailea gure batzarretan.

***5. Ruegos y preguntas***

*Al principio de la Asamblea tuvimos un recuerdo cariñoso para Tomás Paulis, recientemente fallecido y asiduo a las asambleas.*

**6. Aktaren onarpena**

Batzarraren akta irakurri ondoren aho batez onartua izan zen.

Idazkaria

Iñigo Landa

***6. Aprobación del acta***

*Se procedió a la lectura de la presente acta y fue aprobada por unanimidad.*

*Lehendakaria*

Jon Serrano